# 8 Hausnarketa lantzen elkarrizketa kooperatiboaren bidez

**Uztailak 4, 5 eta 6. DONOSTIAko EHUn.**
**9:00-14:00**

**Haur filosofia** metodologiko oinarrizko formakuntza izango da hau. Elkarrizketa kooperatibo eta argudiatuaren bidez, hausnarketarako gogoa eta gaitasuna sustatu nahi dugu ikasleengan, eta horretarako baliabide eta jakintza batzuk eskainiko dizkiegu partaideei. Ikasleentzat interesgarriak diren galderetatik abiatuta, komunitatean eta ludikotasunetik, garrantzitsutzat jotzen dituzten gaietan sakontzen laguntzea da gidariaren lana. Hori egiteko irakasleentzat oinarri teorikoa, estrategiak eta materialak ematea izango da ikastaroaren helburua.

## Norentzat

Hausnarketa sustatu nahi duen edozein irakaslerentzat, nahiz eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, eta Filosofiako irakasleentzat pentsatutako proposamena den.

## Landuko diren gaiak

- Oinarri teoriko-pedagogikoak.
- Materialak eta programak.
- Estrategiak.
- Gidatutako saioak parte-hartzaileek Haur filosofia zer den bizitzeko.
- Parte-hartzaileek tutorizatutako saio labur batzuk prestatu eta garatuko dira.

## Metodologia

Formakuntza teoriko-praktikoa izango da.

* **Imanol ALVAREZ** eta * **Garikoitz MOYA.** Filosofia eta Haur Hezkuntzako irakasleak.

****Joxe Mari Auzmendi Hezkuntza Bekako aipamen berezia jaso zuen proiektua da.**